

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKINETAKO UR-HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO INSTALAZIOEN MANTENTZE-LAN ERAGINKORRAK	Iraupena	40
		Baldintzatua	
Kodea	UF0573		
Lanbide-arloa	Energia eta ura		
Lanbide-eremua	Energia-efizientzia		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikinen energia-eraginkortasuna	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Efizientzia eraikinetako uraren erabileran	Iraupena	100
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Eraikinetako ur-hornidurako eta saneamenduko instalazio eraginkorrak.	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1196_3: ETXEGINTZAN URAREN ERABILERA ERAGINKORRA KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eraikinetako sare hidraulikoaren mantentze-lanetako esku-hartzeak identifikatzea eta erabilerari eta mantentze-lanei buruzko eskuliburuan erregistratzen direla egiaztatzea edo, kasuan kasu, eraikinetaren liburuan.

EI1.1 Ur-hornidurako eta saneamenduko instalazioaren plano batean prebentziozko mantentze-lanak behar dituzten elementuak identifikatzea eta lokalizatzea.

EI1.2 Ur-kontsumoaren efizientziarekin eta ura aurreztearekin lotutako mantentze-lanetako eragiketen ezaugarriak zehaztea eta zereginak eta maiztasuna deskribatzea.

EI1.3 Etxebizitza-eraikin batean ur-hornidurako eta saneamenduko instalazio bat egonik:

- Eraikinetaren sare hidraulikoan egin behar diren mantentze-lanetako esku-hartzeak identifikatzea.
- Mantentze-lanak behar dituzten elementuak lokalizatzea instalazioan.
- Egin beharreko eragiketak espezifikazio eta maiztasun egokiarekin egin direla interpretatzea eta egiaztatzea mantentze-lanetako eragiketen erregistro-dokumentuetan.

A2: Ur-instalazioak hobetzeko proposamenak biltzen dituzten txostenak eta memoria teknikoak idaztea, betiere aurreztearen eta efizientziaren ikuspegitik begiratuta.

EI2.1 Instalazio baten ur-kontsumoan efizientziako eta aurrezteko puntuak zerrendatzea eta teknologiaren eta erabiltzaileen jokabidearen aldetik hobetzeko izan daitezkeen marjinak kalkulatzeko.

EI2.2 Eraikiten ari diren instalazioetako ur-kontsumoan efizientzia hobetzeko proposamen tekniko jakin batzuen hautaketa justifikatzea.

EI2.3 Proposatutako soluzioen bideragarritasuna justifikatzea eta gutxi gorabeherako kostuen azterketa egitea.

EI2.4 Ur-hornidurako instalazioak hobetzeari eta egokitzeari buruzko txostenak eta memoria teknikoak idaztea.

Edukiak

1. Eraikinetako ur-hornidurako instalazioen mantentze-lan eraginkorrak

- Mantentze-lan motak. Funtzioa eta helburuak.
- Mantentze-lan prebentiboak. Prebentziozko mantentze-lanetako zereginak:
 - Prebentziozko mantentze-lanen programa.
 - Kontsumoen kontabilizazioa.
 - Instalazioetan egindako mantentze-lanetako eragiketak.
 - Ekipamenduak eta erremintak.
 - Instalazioen garbiketa eta desinfekzioa.
 - Legionela kontrolatzeko prebentziozko mantentze-lanak.
 - Parametro fisikoen neurriak.
- Energia-kudeaketaren mantentze-lanak. Mantentze-lanetako zereginak:
 - Energia kudeatzeko programa.
 - Puntu kritikoan bilaketa.
 - Gehiegizko gastuen identifikazioa.
- Mantentze-lan zuzentzaileak. Mantentze-lan zuzentzaileetako zereginak:
 - Matxuren diagnostikoa.
 - Osagaiak hidraulikoki eta elektrikoki isolatzeko prozedura.
 - Osagaiak konpontzeko metodoak.

- Mantentze-lanetako eragiketen erregistroa.

2. Ur-hornidurako eta saneamenduko instalazioen efizientziari buruzko txostenak

- Txosten teknikoak. Txosten-motak.
- Justifikazioko memoriak.
- Neurketak eta balioespenak. Aurrekontuak.
- Idazteko eta aurkezteko teknikak.
- Txostenak egiteko bulegotikako aplikazioak.

3. Etxegintzan uraren erabilera eraginkorrari buruzko gomendioak eta araudia.

- Eraikuntzaren Kode Teknikoa.
- Autonomia-erkidegoko legeria eta udal-ordenantzak.
- Baldintza teknikoaren agiria.
- Ur-hornidurari buruzko erregelamenduak.
- Eskakizun sanitarioak eta kontsumoari dagozkionak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

UF0572 gainditua izan behar du: Eraikinetako ur-hornidurako eta saneamenduko instalazio eraginkorrak.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikinen energia-eraginkortasuna.